

## ***GERRA ZIBILA ETA EUSKAL LITERATURA***

Euskaltzaindiak bere garaian jakitera eman zuen *Euskera* Agerkariaren hiru zenbaki argitaratuko zirela urtero-urtero. Horietatik lehenak eta hirugarrenak Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa bilduko zituztela eta bigarrenak, berriz, “ikerketa-lanak eta bestelakoak”: 2007ko zenbakiak eraketa-modu honen arabera kaleratu ziren.

Bigarren zenbaki “monografiko” edo “monografikoago” honek hizkuntzak eta literaturak eragiten dizkiguten gogoeten eta azterketen argitalpen-leku izan nahi du.

Ikus daitekeenez, 2009ari dagokion bigarren zenbaki hau bitan banaturik dator. Bitan banatzea ez da banatu gabe hartuko zukeen tamainak gomendatutako erabakia, edukien nolakotasunak gomendatutakoa baino. Arestian esan bezala, monografiarako norabidean kokatzen den zenbakia da. Horra hor, bitan banatzeko arrazoia. Batak eta besteak gairen baten inguruan mamitutako artikulu-multzoa jasotzen dute. Gaiak ematen dio batasuna bakoitzak biltzen duen artikulu-multzoari. Jada, Itziar Idiazabal irakasleak eman du monografia horietako baten berri. Besteaz jardutea dagokit niri. Beste horrek, “Gerra Zibila eta euskal literatura” du gai monografiko eta, bigarren zenbaki honen eraketa-modua jarraituz, gai monografiko honi buruz diharduten azterlanen ostean liburu-aipamenei (erreseinei) egiten die leku. Argitaratu berri diren liburuen erreseinak, hain zuzen ere.

“Gerra Zibila eta euskal literatura” honetako ikerlanen jatorria urteurrenek gertaerak nahiz pertsonak gogoratzeko luzatzen duten abagunean aurkitu behar da.

Hala, Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) amaitu zela hirurogeita hamar urte betetzen zirela eta, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak (LIB) 2009ko uztailean topaketa bat antolatu zuen UPV-

EHUaren XXVIII. Uda Ikastaroen barnean, asmo jakin batekin: gertaera hark euskal literaturan izan duen oihartzuna aztertu. Topaketa egin zenetik urtebetera, *Eusker*a aldizkariaren zenbaki honetara funtsean han aurkeztu ziren hitzaldiak ekarri dira.

Urteurrenaren kariaz, gatazka hark euskal literaturan hartutako lekua aztertzea zen helburu. Euskal literaturan gai obsesibo bihurtu ez izanagatik, eragin du testurik: topaketa horien marko mugatuan jorragai har zitezkeenak baino gehiago. Ez zegoen aztergaia testu guztietara hedatzerik, ez bazen ikuspegi oso orokorrean gelditu nahi behintzat: aztergai hartuko ziren testuak hautatzea nahitaezko zen. Osotasuna begipean izaterik ezean, erakuskaririk ahalik eta anitzena ematera bideratu zen xedea. Hau da, Gerra Zibilari buruzko ikuspegiaren mosaiko bat eskaintzera. Gertakaria zirkunstantzia eta esperientzia oso desberdinetatik atzematen duten testuen azterketatik jalgi zitezkeen ikuspegiaren mosaiko hori.

Gaiari buruz dokumentatuko da idazlea, noski, baina, azkenean, dokumentuetan behatutakoa bere zirkunstantzietatik eta esperientzietatik iragaziko du, ezinbestean. Alderdi honetatik begiratuta alde nabarmenak egon daitezke hirurogei eta hamar urtetan barrena Gerra Zibilaz jardun duten testuetan. Aldeak ez dira bakarrik denboraren igarotzeak munduan kokatzeko eran aldaketak dakartzalako. Bada besterik ere: denbora aldi horretan gertakaria bizi izan zutenek utzitako testigantzei, gertakaria bizi ez zutenena batzen zaie. Bestalde, ez da orduko euskaldun guztiek modu berean pairatu zuten gertakaria: Iparraldekoek hurbil-hurbil ikus zezaketen, gatazka-gunetik at, ordea, eta, honenbestez, ez zuten jasan Hego aldekoek bezala. Gertakaria bizi izan zutenen artean ere bada alderik. Esaterako, lubakiaren alde batean eta bestean borroka egin zutenen ikuspegia, nekez izan daiteke berdin-berdina.

Honela bada, zirkunstantzia eta esperientzia oso desberdinetatik idatzitako testuetan eraikitako irudien bilgune izatea bilatzen du artikulu-

multzo honek. Zirkunstantzia eta esperientzia desberdinetatik idazten du gatazkaz Iparraldeko bizilagunak eta garaikide duen Hegokoak, atzerrirako bidea hartu duenak edo diktaduraren azpian bizi denak, gerra bizi izan zuenak edo iturrien bidez haren berri izan duenak... Ondorioz, ez dute irudikatuko berdin gerra hori.

Aztergai hartutako testuen generoan ere aniztasuna bilatu da. Prosa narratiboa adierazpide duten testuek jasotako testigantzei buruzko azterketak ugariak izan arren, bada poesia edo antzertia adierazpide izan dutenez diharduenik. Literatur genero tradizionalen barrutitik kanpo ekoiztutako berbaldien azterketara ere jo da: “Gerra Zibila. Iparraldeko ikuspegia” artikulua lekuko.

Aniztasuna, halaber, artikulua desberdinen aztergaien zabaleran: bada idazlan jakinak Gerra Zibilaz eraikitako irudiaren azterketara arreta bildu duen artikulurik: Ramon Saizarbitoriaren *Bihotz biz* diharduena, kasu. Bada, baita ere, idazlan desberdinek Gerra Zibileko gertakari zehatzaz eraikitako irudiaz aritu denik: “Gernikako bonbardaketa euskal literaturan. Errepresentazioa eta begirada” azterlana, lekuko. Hauekin batera, bada ardatz diakronikoan kokatuz, ikuspegi orokorragoa ematen duenik: Gerra Zibilaren gaiak euskal idazlanetan barrena egindako ibilbideren bati heltzen diotenak, hain juxtu.

Beraz, Gerra Zibileko egunetan kokatu eta orduko gertaerez euskal testu-multzo batek jasotzen duen begiraden mosaiko bat eskaini nahi luke artikulua-bilduma honek.

Bilbon, 2010eko urriaren 18an

Ana Toledo